

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko abenduaren 19a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa • Bihar Donezteben finala.

Virginia Moriones • NAEko ikasketen ofizialtasuna eskatzen.

• LUIS AZANZA



Eguzki Irratia

hamabost urte

uhinaren ezkeraldean

Eguzki Irratiak, Iruñeko irrati libre zaharrenak, hamabost urte bete berri ditu. Hamabost urte kalekoen iritzia eta kontrainformazioa jorratzen.



Bera • Herriko musikariak zuzenean ariko dira

Mustafa#, Petti, Borrokan eta talde sorpresa bat ariko dira bihar herriko ostatuetan

Herriak eta Hiriak kultur hilabeteko azken-aitzineko asteburuan, Berako zenbait musika taldek kontzertuak emanen dituzte hiru ostatutan. Aukera ederra.



Petti bakarlaría Zizka tabernan ariko da bihar.
• LURRA

BIHAR LARUNBATA, ILUNTZEKO 21:00etan hasita, hiru kontzertu aditu ahal izanen dira Beran. Musika estilo desberdinak jorratzen dituzten taldeak eta bakarlaríak ariko dira. Bidaxka ostatuan hasiko da emanaldia, Petti bakarlaríaren kontzertuarekin. Hilabete guti daramatza 24 urteko beratar honek bakarlarí gisa kantuan, baina ezaguna da Noise Hole taldean aritu zelako kantari. Bakarlarí gisa aritzeaz gain, Ezpal eta Zup taldeetako kantaria ere bada Petti. Bakarlarí gisa, aldiz, bertzelako erritmoak jorratzen ditu, folk eta blues kutsuko abestiak kantatzen baititu. Berak sortuak ditu kantu gehienak, baina bertsiok ere egiten ditu.

Bakarlaríaren kontzertua bukatu ahala, estreinakoz joko duen Mustafa# (sostenitua) taldearen emanaldia aditu ahal izanen da Zizka ostatuan. Mustafa# Bera eta Lesakako zortzi musikari gazte osatzen dute, eta jazz estilotik hurbil daude. Iazko udan hainbertzeko arrakasta lortutako 16 Jazzeroak taldearen oinordekoa

da bihar aurkeztuko dena. 16 Jazzeroak taldearekin Donostiako Jazzaldian eta Musika Hamabostaldian izan ziren Bera eta Lesakako gazteok. Orain aurkezten duten proiektuak lehenagoko musikarekin zerikusia duen arren, ez da erabat berdina. Bertzelako fusio doinuak ere nahasi dituzte ibilbide berrian. Lehenagoko taldea desagiteko arrazoia taldeko kideen kopuru handia izan da, neurri handi batean. Taldekideetako anitzek lan kontuentatik utzi behar izan zuten taldea. Bi musikari berri erantsi zaizkie lehenagotik zeuden bertze seiri.

Zizkako kontzertua amaitu orduko, Pui ostatuan izanen da arratseko azken emanaldia. Borrokan taldeko gazteek joko dute lehenik. Talde honetako kideek denbora franko daramate jotzen,

nahiz eta 14 eta 17 urte arteko gazteek osatua izan. Doinu gogorrak dituzte oinarrian euren kantuetan. Haiekin batera, talde sorpresa bat ariko da. Lehen emanaldia eskainiko duen taldeko kideen izenik ez da jakinarazi, ezta taldearena berarena ere. Sorpresa gisa gorde dute jorratzen duten musika ere.

Ekitaldi gehiago asteburuan

Ez dira hauek, hala ere, asteburu honetarako aurreikusitako ekin-tza guztiak. Gaur bertan, arratsaldeko 20:00etan Etxalarko Eskola Zaharretan mahai-ingurua prestatu dute Herriak eta Hiriak-eko antolatzaileek. Landuko den gaia herri turismoa izanen da, eta bertan izanen dira Manolo Lizardi, orain arte Bertizko Turismo

Partzuergoko gerente izan dena; Juan Martin Aleman, nekazaria eta landa etxeen elkarteko lehendakaria; eta Iparraldeko ordezkarri bat.

Larunbatean, hurrengo igandea arte, hilak 28, zabalik egonen den edergailuen erakusketa zabalduko da. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan izanen da. Irekitzearekin batera, Pantxika Telleria azkaindarrak zuzentzen duen dantza garaikide taldearen saioa ikusi ahal izanen da. Bi ekitaldiok Berako kultur etxean egingen dira.

Igandean, Sarako Omordian antzerki saioa izanen da arratsaldeko 16:00etan, Bordaxuri taldearekin. Iparraldeko taldeak izen bereko antzezlan eskainiko du, Piarres Larzabalek idatzia.

→ Jon Abril

Sakana
•
1997ko kirolaririk onenen sariak banatu dira

OSKAR LASA PILOTARIA ETA Oihana Olaberrria txirrindularia, biak etxarriarrak, aurtengo Sakanako kirolaririk hoberenak izendatu dituzte 18 urte baino gehiagoko kategorian. Txiki-kien kategorian, berriz, Joan Arrieta Arakil-Uharteko txirrindularia eta Itziar Pazos koxkol biltzaile lakuntzarra. Sakanako talderik hobereena, Etxarri-Aranazko futbol taldea izendatu dute. Euskara kirolean gehien bultzatu duen taldeari dagokionez, Arbizuko pilota eskolak eskuratu du txapela. Bessetik, Gorriti anaiek eta Txapel-Azpi futbol taldeak aipamen berezia jaso dute. Kirolariok guztiok Arbizuko Izarra jatetxean egingo den afariaren ondoren jasoko dute saria.

Urtero abenduan egiten ohi denez, aste honetan Sakanako Kirol Astea egiten ari da. Hitzaldiak, mahai-inguruak, Sakanako pala txapelketako finalak eta 1997ko Sakanako Kirolaririk Hoberenaren sari banaketak bat egiten dute kirol asteko ospakizunekin. Gaur txirrindularitzari buruzko mahai-ingurua egingo da, eta larunbatean Sakanako Pala Txapelketako finala jokatu da Arbizuko kiroldegian, 18:30etan. Arakil-Uharten Aiztondo mendi taldeak eginiko diapositiben proiektzioa egingo da Udalean 20:00etan. Gauean, afaldu ondoren, sariak emango dituzte Arbizun.

→ Amaia Amilibia

metropoli forala

FELIPE RIUS



Top-modela (Eguberriko ipuina)

Kartoa pixka bat mugitu zuen egunsentian eta elurra ari zuela ikusi zuenean kagundioska hasi zen. Ardo tetrabrik hutsik zegoen gainera, eta bazekien hotzak eta ordu hartan hiriko bazter guztietara hedatzen ziren zarak loa galeraziko ziotela. Lagunari aurreko gaueko koinak pitin bat geldituko balitzako sikiera. Eskua luzatu zuen eta ez zuen ez lagunik ezta botilarik ere aurkitu. Non egonen ote zen alua? Zergatik utzi zuen bakarrik goiz hotzean? Akaso ez zion zakila miazkatu lo gelditu zen arte? Altxatu beharra zegoen, udaltzainak berehala iritsiko ziren eta bere aterpe zikin hartatik botako zuten edo, are okerrago, monjetara eramane zuten berriro, eta, jakina, monjekin ez zegoen edaterik. Jaiki zenean listu gorri bat eta kolore bereko hainbat muki bota zituen kartoi gainera, plastikozko poltsa hartu zuen eta plazara atera zen. Bar-

nean zerbaitek adierazten zion bere azken negua zela, eta egia esan ez zitzaion gehiegi inporta; ardo pixka bat lortzea, berriz, ezinbestekoa zen. Eskua urruturik ez zegoen poltsiko bakarrean sartu zuen eta txanpon pare bat topatu zituen, saltoka hasteko gogoa sentitu zuen, baina artrosia krudela zen. Eguneko lehenengo tetrabrik hustu ondoren hobeki sentitu zuen, askoz hobeki, eta ausarta. Bazekien nola bukatu ohi ziren bere ausardiak, baina berdin zitzaion, egun berezia zen. Gosaltzen ari ziren ejekuti-boz beteriko kafetegi batean sartu zen eta bapatean zeramatzen estalki guztiak kendu zituen, gorputz zirmurtua erakutsiz. Eskua alura eramane zuen eta desafioa egin zien bezero guztiei: «Nahi izanen zenukete, bai, zuen zakil zikinak zulo honetan sartu, baina ez duzue horretarako kategoriarik; nik Balenciagaren jantziak eraman ditut, Rainieroren aurrean desfilatatu

dut eta maitalerik aberatsenak izan nituen zuek bezalako putakume batek kale gorrian utzi ninduen arte». Barreak entzun ziren. Ez zuen deus gehiagorik esateko astirik izan. Biluzik bota zuten kalera bere trapuekin batera. Jende guztia begira zuen. Denda bateko kristalean ikusi zuen bere burua eta iruditu zitzaion azken desfilea egin behar zuela erretiratu aurretik. Autopistako zubira joan zen eta barandara igo baino lehen Balenciagaren arropaz jantzitako gazte eder bat agertzen zen argazkiak atera zituen. Barre egin zuen eta pareta txikiaren ertzetik ibiltzen hasi zen, harro, seguro bere buruaz, top modelek egiten duten bezala. Autopistaren bi aldeetako afiteetatik, arrakastaren tontor iheskorretik, Claudia Schifferrek, Naomi Campbell eta Eva Herzigovak irribarretsu begiratzen zioten. Txaloak eta argazkilarien flashak sentitu zituen.

Doneztebe • Euskal Kantu Txapelketako finala bihar

Hogeita bi partaide ariko dira 16:30etatik aurrera nor baino nor Bordatxo dantzalekuan

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala bihar arratsaldean jokatu da Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Finaleko lehenengo bostak 1998ko ekainean Iruñeko Gaiarre Antzokian egingen den Hego Euskal Herriko txapelketan ariko dira.



amaitu zen San Miel Lankide Heziketako aretoan jokatu zen kanporaketa.

Bihar arratsaldeko 16:30etan hasiko den finalean, beraz, maila handiko kantariak entzuteko parada izanen da Donezteben. Gainera, musika estilo anitz entzuteko aukera ere izanen da: kanta zahar, berri eta berez sorturikoak, bikoteek, bakarlariek eta taldeek abestutakoak.

Besteak beste aipatzekoak dira Sakanako Ihetza taldearen bi kantak; Berako Oskar Estanga eta Ainhoa Apeztearen *Herriko irrintzia* kanta, Leitzako Aurki taldearen *Maltemina* abestia, Altsasuko Erkuden eta Itziar Floresen *Testamentuaren azken klausula* eta Goizuetako taldearen *Arrano beltza*. Nabarmenezkoa da baita ere partaideen musika maila handia izan zela eta instrumentu jostzaile andana bildu zela, hala nola gitarra joleak, zeharkako xirula joleak, trikitilariak, bateria joleak...

Euskal Kantu Txapelketa bi urtean behin antolatzen da Hegoaldean. Iparraldean, berriz, lau urtean behin. Hori dela eta, aurtengo Hegoaldean izanen da txapelketa. Esan bezala, txapelketa nagusiko finala Iruñean jokatu da datorren urteko ekainean, eta bihar jakinen da nor diren Nafarroatik lehiatuko diren bost finalistak.

→ Amaia Amilibia

Maila handiko hamasei talde lehiatuko dira Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren finalean • LUIS AZANZA

EUSKAL KANTU TXAPELKETA 1997




FINALA

**ABENDUAK 20
16:30etan**

DONEZTEBE

**Bordatxo
Dantzalekuan**

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua.

**Donesaturdiko
oilarra
lumutzen**
Juan Kruz Lakasta

José Miguel

José Miguelek 45 urte ditu, Iturraman bizi da, eta hiru seme-alaba dauka: 10 urteko mutikoa, eta zazpi urteko neska bizkiak. Gazte garaian, euskaltzale-abertzale-ekertiarra izan zen. Euskal Herria altxatzeko xedeak bultzaurik, egunak lanean eta ilunabarrak bileretan ematen zituen. Haatik, bizkiak jaio zirelarik, aski esateko tenorea heldua zela erabaki zuen. Arazoa ez zen, soilik, semearekin eta alabekin denbora gehiago igaro nahi zuela. Arazoa zen, batez ere, politikaz nazkatuta zegoela, nazkatuta zegoela bilera luzeek, Euskal Herria altxatzeko ezintasunez.



Bizkiak jaio zirenetik ez da bilera bakar batera ere joan, ez eta Axular ikastolako guraso bileretara ere. Emaztea joaten da horietara. Hasieran, gogorra egin zitzaion. Haurrek eta emazteak ez zuten betetzen erebat politikak utzitako hutsunea. Bolada txarra igaro zuen. Ordu andana pasatu zuen etxepeko tabernan, Fuentes de Manaon, Riki izeneko zerbitzariari bere arazoak behin eta berriz kontatzen.

Hutsunea estaltzeko premia larria zuen, eta kirolean topatu zuen behar zuen estalkia: kirolzale amorratu bilakatu zen. Hasi zen Labritera eta Sadarrera joaten, telebistaren aitzinean ordu mordo igarotzen... Zorionsutsu izan zen, Nafarroaren kirol hondamendia heldu zen arte: Osasuna Bigarren Mailara jaitzi zen, Retegik manomanista jokatzeari utzi zion, eta Indurainek bizikleta eskegi zuen.

Harrezkerotzik, José Miguel Nafarroako kirolaren berpizkundearen zain bizi izan da, eta joan den asteburuan, espero zuena heldu zen: Osasunak O-2 irabazi zion Levanteri, eta Retegik 22-21 garaitu zuen Titin. Haatik, José Miguelel beranduegi zen. Kirolak anestesiaturik ez zegoez, joan den astean Bilbon egitekoa zen manifestaldiak Euskal Herria altxatzeko itxaropena berpiztu zuen harengan. Gertatu zena gertatu zen, eta kirolak, gero, ezin izan zuen sentitzen zuela aldatu: hutsune hotza, egunotako eguraldia baino hotzagoa. ●

Hamabost urte uhinetan

Iruñeko Eguzki irrati libreak hamabosgarren urtemuga ospatu berri du

Iruñeko Eguzki irrati libreak hamabost urte bete ditu. Uhineta hainbeste denbora egoteak ematen duen eskarmentua lagun duela, irratiak betiko ildoari eusten dio: kaleko ahotsa izan eta kontrainformazioa landu.

EGUZKI IRRATIAK 1982ko ABENDUAREN 15EAN, gaueko hamarretan, zabaldu zituen lehenengo mikrofonoak. Aurretik ireki ziren Sorgiña

eta Guardia Zibilak urte bat lehenago itxi berria zuen La paraisoren lekua hartuz Iruñeko Eguzki talde ekologistaren inguruan zebiltzanek abiatu zuten uhinetako proiektu berria. Hila-bete gutxitan hiriburu mugimendu «alternatiboak» erakarri eta bildu zituen irratiak. Kolore anitzetako jendea hurbildu zen: etxe okupatzaileak, zentral nuklearen aurkako taldeak...

Mabele Goyak, sortzaileetako batek, gogoratu digu sorrerako garaia. «Esparru zabal bat izateko

beharra zegoelako sortu zen. Elkar ezagutzeko eta gauzak egiteko. Esparru informatibo ezberdina sortzeko beharra zegoen. Garaietan kalean zegoena mahaigaineratu eta zailantzan jartzeko. Kalearen ispilu zen. Mugimendu alternatiboen irrati alternatiboa izan nahi zuen». Lehen emisio hartatik hamabost urte joan dira, gazi-gozok lagundutako urteak. Irratitik hainbat mugimendu eta lagun iragan dira euren iritzia eta informazioa zabalteko. Hainbeste urte ez dira alferrik joan, eta denborak aurrera egin ahala irratiaren helburu garrantzitsuenetako bat kalitatea hobetzea izan da. «Hasieran dena onatzen zen. Edozerk balio zuen, irratiaren entzuteko eta gauza berriak egiteko ilusioa eta gogoia ziren nagusi», adierazi du Mabelek. Irratia kalean bizi eta gertatzen ari zenaren lekua zen. Edozein sartzen zen eta nahi zuen programa eta musika uhineratzen zuen. Nolanahi ere, denbora ez da alferrik joaten eta irrati gorpuzten eta finkatzen joan zen heinean lana hobeki egiteari lehentasuna ematen hasi ziren entzulearengana hobeki helzen zirelako.

Irratien belaunaldi aldaketa gertatzearrekin batera etorri ziren aldaketak. 1987-1988 urtee-

tan irratiara jende berria sartzen hasi zen. Ruben Marcilla da informatiboetako taldean aritzen direnetako bat, eta honela azaldu digu eboluzioa:

«Guk egiten genuena, hein handi batean, beste irrati batzuek bereganatu zuten. Hasieratik irratiaren zeuden asko joan egin ziren, eta ohartu ginen irratiaren kalitatea asko jaitsi zela. Geroztik, lehentasuna eman diogu kaliteari. Orduak eta orduak aritu ginen eztabaidan, eta kontrainformazioa ematea guztion lana zela ikusi genuen. Belaunaldi aldaketaz gain beste-lako galbahe gogor-rrak pasatu behar izan zituen irratiak, bi aldiz itxi baitzuen Espainiako Polizia

Nazionalak. Lehena Espainiako Erregearen etorrera zela eta, 1998ko otsailaren 9an: hogei egunez itxi zuten. Handik lau urtera, greba orokor baten ondorioz berriro sei egunez itxi zieten 1992an. Bi aldietan, irrati material guztia eraman zuen Polizia Nazionalak, eta denbora franko joan zitzairen berreskuratzeko. 1993tik aitzina, une zail horiek gainditu ondotik, Eguzkikoak ohartu ziren 88an egiten zen irrati modu hark ez ziela balio. Hasierako helburuak eta norabidea ahaztu gabe, haize berriak jo zuten Eguzki Irratian, eta hori nabaritu egin zen edukian. Berritu beharra zegoen. «Duela bost urte konturatu ginen ordura arte baliagarria zen kontrainformazioaren ildo agortua geratu zela, eta geroztik beste norabide bat urratu nahirik gabiltza; orain arte egin duguna baztertu gabe baina talde bezala gauzak argi izan gabe», azpimarratu du Rubenek.

Informatiboaren aldeko apustua

Berritze dinamikan murgildurik, irratiaren indarra hartu dute informatiboak. Astelehenetik ostegunera 22:30etatik 23:00etara egiten diren albistegietan lan eta arreta berezia jarri dute Eguzki Irratiok. «Informatiboak, ga-

Guztiak bildu zituen festa

Eguzki Irratiak hainbat jende biltzen duela argi eta garbi nabaritu zen joan den ostiralean, hamabosgarren urtemuga ospatzeko Sanduzelako txokoan antolatu zen festan. Afaltzera 225 lagun inguru bildu ziren dotoretore jantziak eta gauak dituen orduak luzatzeko prest. Afalondoa, esatari eta informatzaile «alternatiboak» izateaz gain abeslari eta dantzari trebeak ere badirela frogatu zuten batek baino gehiagok. Itaundutako guztiek primeran pasatu zuteladiote, inor gutxi joan baitzen etxera

eguna argitu baino lehen. Parranda mundiala izan bazen, hain bildu zituenak esanahi garrantzitsuagoa duela uste du taldeak. Julia Itoiz aurkezle lanetan aritu zen festan. Eguzki Irratian urtebete eskas daraman arren, xedea zein zen azaldu digu. «Jaiak, ongi pasatzeaz gain, Eguzki Irratiaren inguruan lanean ari garenek biltzea eta hurbilago sentiaraztea zuen helburu. Irratia egiteko dugun gogoaz ohartaraztea eta, era berean, iritzi ezberdinetako taldeak biltzen dituen elkarte handiago bat garelako sentitzea».

Hamabost urte joan dira, eta Eguzki Irratiaren inguruan biltzen direnek ilusio hutsarekin hasi zutena errealitate sendo bilakatu dute. «Zerbait oso handia eraiki dugun», nabarmendu du Rubenek. Nolanahi ere, irratiak betiko tokian, dialaren ezkerrean FM 105,4ean jarraituko duela badakien arren, etorkizunak kezkatzen du. «Gaudenak oso larri iristen gara lan guztia egitea, eta lan egiteko beste modu bat aurkitzea zaila da. Ideiak baditugu, baina mamitzeko eta garatzeko beta gutxi. Irrati libre baten beharra inoiz baino nabariagoa dela ikusten dute baina, aldi berean, sortutakoa aurrera ateratzea lan handia da omen da. «Irratiaren etortzen diren askok uste dute orain 10-15 urteko dinamika bera dagoela. Zaila da gauza berriak eztabaidatzea eta egitea. Berrikuntzak gehiago datoz programaren bat egiten ari den norbaitengandik taldeak egiten duen gogoetatik baino», gaineratu du informatiboetako partaideak. Dena den, belaunaldi aldaketa gertatzen ari da berriz ere, eta jende berria hurbiltzen da irratiari. Jende hori dinamikan sartzeko egitura berritu beharko litzatekeela uste du taldeak. «Egitura berritu beharko litzateke; erabakiak batzarrean eztabaidatzen eta erabakitzen jarraitu behar da, baina batzorde autonomoak eratu beharko lirateke mailatasun gehiagoreko itateko eta lana ez pilatzeko».

Lana eta ilusioa soberan dutela, Sanferminetan jartzen duten tabernatik, noizbehinka antolatzen dituzten kontzertuetatik eta programa bat egiteko hilero jartzen diren kuotetatik bizi dira. Funtzionamendu normalerako nahikoa.

Araozak arazo, etorkizunerako baikor badira ere, Eguzki Irratian oraindik ere behar bezalako oihartzuna eta lekua lortu ez duena eskara da. Euskarazko programak lehentasuna duten arren, euskara gutxi entzuten da Eguzki Irratian. Informatiboetan aurrean hasi dira sartzen; egunero gutxienez berri bat euskaraz ematen saiatzen dira. «Euskaraz agertzen da jende euskalduna programaren bat egitea hurbiltzen den heinean. Emittitzen denaren %5-10 bitartean egiten da euskaraz. Nolanahi ere, irrati Iruerrian gero eta gehiago entzuten dela eta euskaldungoa handitzen ari dela aintzat hartuz, denborarekin gehiago sartzea espero dugun», dio Rubenek.

→ Irene Arrizurieta



Eguzki Irrati informatiboak
• LUIS AZANZA



Eguzki Irratia eratu ondoren irrati ideek egindako lehen asanblada.
• INAKI GARCIA

rrantzia izateaz gain, gehien entzuten diren irratiaioak dira. Erakundeek zabalitzen dituzten iriztietatik kanpo, giza mugimenduen errealitatea islatu nahi dugun», dio Rubenek. Dena den, informatiboek arrakasta badute ere, beharrik ere sumatzen dituzte. Jendearen partehartze zabalagoa nahi lukete eta iritziak, analisiak eta ikuspegi sakonagoak ere tarteren bat edukiko beharko luketela uste dute.

Informatiboak egiteko hamar-hamabost laguneko taldea dago eta egunero bi edo hiru lagun aritzen dira emittitzen. Kalitatearen eta informatiboaren aldeko apustuan lagundu du azpiegitura berriak. Berritu egin dute estudioa, aspaldi okupatu eta geroago erosi Navarrerria kaleko 6. zenbakiko lehenengo solairuan, eta orain egokiago egin dezakete lan.

Barrura begira ez ezik kanpora so eginez ere izan dira aldaketak Eguzki Irratian. Haren gerizean sortu ziren beste ekimen autonomo batzuek aurrera jarraitzen dute. 1993an, informazio esparrua zabaldu beharra sumaturik, taldeak mar txan jarri zuen Eguzki Banaketak: kamisetak, fanzina eta musika alternatiboa banatzeko antolakundea. Aurrera jarraitzen du eta egun proiektu errotua da: Baina ez da bakarra. 1995ean Eguzki Bideoak sortu zuten, eta horrek ere egin du bere bidea. Material ugari zuten eta horri irtenbidea eman behar zitzaion. Egun igandero Iruñeko Gaztetxean pelikula bat eskaintzen dute eta deitzen dituzten Nafarroako herrietara ere joaten dira filmak botatzera.

Ruben Marcilla

«Urteotan oso handia den zerbait eraiki dugu eta jendearen partehartze zabalagoa nahi genuke. Lan egiteko beste moduren bat aurkitu beharko genuke»

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Nemesio Etxanizen 98. urteurrenean



A tzeneko sanferminetan, dolu zuri batek eraginda, gauzatu ez zen txistu kontzertua pasa den azaroaren 30ean burutu zen, ozen eta oparo, agian arrakastatsu ere bai, eta huraxe, Sorozabal jaio zeneko mendeurrena dela eta ospaturiko guztiei akabantza zaiela badirudi. Iruñeko Karlos III. antzokian aditu ziren doinuak, aurretik ere, Tafallako festetako txistu emanaldian entzun ahal izan ziren arka-kusoen plazan, etxetiarragoa izanagatik, ez okerrago ordea. Bietan, eta Sorozabalenarekin batera, Etxanizena ere agertarazi ziguten, donostiarraren lagun eta lankide, *Jai alai* filmerako ondu Maitetxu zortziko ospetsuari euskal ordaina gehitu ziona eta *Gernika* hiletako doinuari euskarazko hitza zizeldu ziona hots. Gaurkoan, azkoitiarra jaio zeneko 98 urte betetzen dira, eta *Gernika* doinuak bukaera daraman «askatasuna eta pakea» batera ezina dirudien lelo huraxe geure baitatik aldendu ezinean gabiltza oraino. Tamalez, bai Tafallan eta bai Iruñean, Etxanizen aipamena erabat oharkabean igaro zelakoan bagaude nafar-eria dateke, gu jota, txistua joaz jotatik haruntzago jotzeko lausotzen gaituena, deus-jaz aseko jakineza ozean harro jabaldurik.

Nemesio Agapito Etxaniz Aranbarri Azkoitian sortu zen. Hango lasailletarrean lehenbiziko ikasketak burutu-ta, buruñurdunen Lekarozko etxera joan zitzaigun. Hura izan zen Nafarroarekin izan zuen hartu eman eskasetakoa: «Eztzizaizkion beñere aztuko gogo-jardun aietako egun gorri aiek. Itzaldi bildurgarri aiez burua berotu ta gero, tartetan jolas lekuan denak illeratan ixilik zebiltzala pasa zituan otz aiek. Eskuak igurtzi ta igurtzi ta geroago ta ospel geiago. Etzan, ala ere, dena kezka eta otza. Ostegunetan mendi aldera egiten zituzten ateraldiak eta egun osorako Otxondo aldera edo Legateko gurutzera joaten ziranean, etzan

aiek baino zoriontsuagorik. Frai Felix zuten orrelakoetan askari banatzaile. Eta belarretan exeri ta patataz gizen-dutako arrautzopil ebaki aiek banatzen zizkienean, nor aiek aifnean?». Baztanen bi urte eman ostean, Comillasera joan zen teologia ikastera. Orduan ezagutu zuen Orix eta beste. 1924.ean apezte zenean, Azkoitira egin zuen eta geroago ere Zumaia eta Debara, apez laguntzaile. Azkenik Donostiako moja batzuen kapelaua izan zen. Euskaltzaindiak urgazle egin zuen 1955.ean, eta 1979.ean berriz, ohorezko. Donostian hil zen 1982.ean.

Etxanizen langintza zabala dugu oso. Gazterik hainbat aldizkaritan kolaboratzailea izan zen: *Euskal Eснаlea*, *Argia* eta *Zeruko Argia*, *Euzkadi*, *Egan*, *Euzko Gogoa*... hauek eta beste zenbait habero dira Amilaitzek, Erratzuk edota Artiz'tar Xabierrek hitz lauz zein bertsoz ziprztindu ongikiro ziprztindu egin zituenak. Idazlan zerrendaren luzeak aztoragarri dakiguke.

Nabarmenezkotan, behialakoan Iñaki Seguiolak atondu *Izotz-Kandelak* elaberria aipa liteke -Donostia, Elkar, 1992-. Lan hau nekez argitara zitekeen behar bezala idatzituzen garaian, Etxanizek berak gogorregizat bazeukan: «Nik buruan dudana eleberria ez litzake argitalgarri izango gure egurats puritano ontan.

Aspaldi dabilkit eleberri orren idazburua durundioan. Izena auxe luke: *Besteak ezetz zion*. Eleberriko bestea, apaizari sortu zaion alter ego ori duzu, nastu ori. Eleberriak apaizaren barne giro edestiz gain, beste maitasunari bat izan dezake gazte artekoa». Erratzuk 1966.ean ondu zuen bere elaberria: «Irurogei urteak gainduak ditugunok eta euskaltzaleen mundu txiki ontan burrukan ari geranok, ikasi degun euskara apurra ondorengoei uzteko kezka geron izate barruan daramagu. Azken urtetan, gizaldi gazteari gure euskal jakintza libururen batean uzteko contra reloj lan egin bearra degu». Zaluegi zihoakigun Azpeitiko. Egun, zenbatek ote du bere izkutuko eleberri autobiografikoaren berri zehatzik ezagutzen. Ur Apaletegik oker ez banago-, arestian egunkari honetan esanari men eginez, zilegi bekigu ezkor pentsatzea, euskal letretan alderrai noraezean gabiltzanok gezur handi batean murgildurik gaudenentz zalantzatzea. Hatzen artetik area bezala joaten zaigun aurrekoenari hel ezinik, astirik galdu gabe ekiten diogu paper hutsa zirriborrateari, hezur-txuri erditu hitz finkotua nekez mamitzen uzten ez dugula. Horixe dateke, apika, tai gabean zornetzen ari zaigun euskal literaturaren aje iluminia.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Hidalgoak

EUSKALDUNON ARTEAN, gauza batek erreze-lotu izandu nau beti: nork bere deiturako heraldikak, gauza haundizat bezala, etxe sarre-ran (edo nonahi) erakusteko duen joera nabariak. Ez ote du, azpi azpian, gutiuste ilunen bat gordetzen handinahi horrek? Nik uste baietz; eta saiatuko naiz, nere senak artxiboetan sumatu duena azaltzen.

Ertaro amaiera arte, jende arruntak apenas egiten zuen bere odolekoen segimendurik; nahaste eder batean bizi ziren orduan, batez ere, Trentoko Kontzilioak familiaren segimendua, apellidoak eta beste diziplinatu zituen arte. Eta juxtu orduantxe ugaldtu ziren hidalgo kontuok. Hala, «hidalgo hñodalgo fñodalgo» hitzak, inoren semetzakoa besterik ez du esanahi funtsean.

Eta diru pittin bat izan ezke-ro, edozeinek eskura zezaken hidalgi titulua, baldin eta biz-pahiru testigu berekin hartu, eta notario baten aurrean bere gurasoak eta aiton amonak famili onekoak zirela aitortzen bazuen; normalean ez baitzen aiton amonena baino atzerago-ko daturik ezkatzen exekutorietan.

Horregatik oso ongi adierazia dago euskaraz «Aitonon seme > aita onen seme», bestetan beste, Bereterretxen kantuan, geroztik Txahok «Aitorren seme» bihurtu eta Aitor euskal izen-ustez mitikoa sortzerainoko okerbide luzea egin badu ere. Eta normalean, hidalgo egiten zenak, eskudoa ere ateratzen zuen. Eta, gero esanen dudana-gatik, ederki dago, eskudo haiei euskaraz «mazmorro» edo «mañruarri» ere deitu izana.

Nork ateratzen zuen, ordea, hidalgi titulua? Orain bezalaxe, trepalari samar zenak, eta gauza ofizialak gradu handikotzat zeuzkanak. Eta gauza jakina da hidalgi titulua ateratzeko eskatzen zena: «que todos an sido y son avidos y tenidos por Crist. Viejos de pura y limpia sangre

sin mancha ni mezcla de Judios, Moros y Agotes, penitenciados ni otra secta reprovada por el S. O. de la Inqustición. Nork ez egin par!

Gauza batek harritu izan nau halere, beste horien artean jitorik ez aipatzeak. Hala dio Caro Barojak hauetaz: «*capaz el menor de los tales de hacer información de limpieza, diferenciando su sangre no sólo de la judía, sino de la mora, que segun Estebanez y nuestros antepasados era de calidad algo mejor*». Harrapazazue!

Bada, herriotako exekutoriak ikustean, aise sumatzen da, hain zuzen ere, judu, jito edo agote kastakoak zirela hidalgi agiriak ateratzen zale-tuenak. Normala gainera, ongi pentsatuz gero. «Baina nola lite-ke?» kejutuko zara baskoi ino-zente eskudodun hori. Arrunt erreza: «*callando lo malo y diciendo sólo lo bueno de las familias*», jakina, eta normale-an, nor bere kastako notarioz eta testiguz baliatuz. Halere, askotan, espagatik edo, salatu egiten zuten exekutorigilea, hereje, agote edo judio zela azalduz. Ikusiak dauzkat, Leitzatik atera gabe, holako kaso polit askoak. Jakinen bazenu!

Eta orain, halakoen ondore-koak agertzen zaizkit tarteka, beren «eskudo» nobleak eraku-tsiz, harro harro! Eta kuidaul... Eta Bereterretxen hura etortzen zait: «*enian uste erraiten ziela aitonon semeke gezurrik*». Halere J.M. Iribarrenek «*Las historias, en las ejecutorias*» esanera, alderantziz espliketzen du, esanez: «*que las fantasias de las gentes acerca de su linaje, no son de creer si no se demuestran documentalmente*». Beste giza-joa! Papermutur beztuxe bat aski balitz gure arteko jitojende trepalari ohoregose guzia nobletzeko, orduantxe bapo gu!

Bukatzeko, gaur zortzikora bihurtuz, esan dezadan, *petxero* kontua iraintzat hartzen duena bezain inoxente dela, hidalgi kontua nobleztatat har-tzen duena.

Ziria

• Motxorrosolo •

Gordetzekoak

KUPOAREN AFERAZ LANDA, BESTELAKO MUGIMENDUEK GIROTU ZUTEN BATZARRAREN AURREKOA. Aladinok, iragan astelehenean aurkeztu zuen duela hilabete bat iragarri zuen dimisioa. Lolak ohartarazi zionez, Manolok bere botoaren beharra zuen. Egun, muga jakinekoak zenbaitzuen karguak, bi urte dituzte txokoren bat bilatzeko. Aro berri baten aurrean omen gaude, baten batek, Barañaingoa ahaztu nahian, euskara ere garraile aterako dela sinistu nahi du. Iragan denborak bere gordekoa utzi du, eta horren testamentu-beteazleak Cordovillan du kabia.

Virginia Moriones Antzerki ikaslea

«NAEko ikasketen ofizialtasuna eskatzen dugu»

Virginia Moriones Nafarroako Antzerki Eskolako (NAE) batzarrean ikasleen ordezkarietako bat da. Hamabi urte bete dira eskola zabaldu zenetik eta ikasketak oraindik ere ez dira. Egoeraz nazkatutik, ikasleek eskutitz bat bidali diote Olentzerori, eta bidenabar Nafarroako Gobernuari, ofizialtasuna eskatzeko.



soslaia

Bizitza antzerkigintzaren inguruan eraiki nahi du Virginiak, baina berak eskolak dituen 40 ikasleen izenean egin duen eskaerak antzerki eta berriketako gogo gutxi adierazten du. Askok kostako bada ere, noizbait aintzat hartuko dituzten itxaropena dute.

■ **Hamabi urte Nafarroako Antzerki Eskola martxan dela. Zer eskatzen duzue Olentzerori bidalitako eskutitzean?**

Behingoz, Nafarroan Arte Dramatikoko ikasketen ofizializazioa eskatzen dugu. Gaur egun Nafarroako Gobernuak ez ditu onartzen ikasketak. Hiru urteko ikasketak egiten ditugu eta ondotik jasotzen dugun ziurtagiriak ez du deustarako balio Administrazioaren aurrean. Espezializaziorik izan ez arren, onarpen lanbide heziketako titulua edukitzea ekarriko luke.

■ **Zer ekimen prestatu dituzue?**

Duela hilabete bat Udazkeneko Antzerki zikloaren hasiera aprobetxatuz sinadura biltzen hasi ginen. Eskolaren atarian mahaiak jarri genituen, eta Gaztelu plazan antzerkia egitera atera ginen beste batean ere eskatu genituen gure aldeko sinadurak. Gero, zuek (EGUNKARIAK) jaso duzuen eskutitza igorriko diegu herrialdeko gainontzeko komunikabideei, bai eta Iruñeko Udalarari eta

Nafarroako Gobernuari ere.

■ **Izan duzue harremanik Gobernuarekin?**

Nafarroako Antzerki Eskolako ikasle elkarte bezala inoiz ez gara Gobernuarekin bildu. Nolanahi ere, guk ezezik jaso dugula ezin esan badugu ere, eskolari eskubide hori ukatu zaio behin baino gehiagotan. Eskolako zuzendaritzak behin eta berriro ezezkoa jaso du. Orain arte Maite Pas-

cual eskolako zuzendaria bildu izan da Santiago Arellano Hezkuntza zuzendariarekin, baina azken hitza Markotegik duenez, ez du deus lortu. Hori dela eta, Javier Markotegi herrialdeko Hezkuntza sailburuarekin elkarrizketa lortu nahian gabiltza. Emaitzarik ez dugunez lortzen, erabaki dugu eskolak ofizialtasuna eskatzeko sustengu gehiago behar duela eta, bidez batez, agintariei jakinarazi nahi diegu guztion gogoia dela.

■ **Eskolak eta eskuratzen duzuen tituluak ofizialtasunik ez izateak zer dakar?**

Ofizialtasunarekin jasoko genukeen dirulaguntza handiagoa litzateke, eta ondorioz, azpiegitura hobea litzateke. Horrela, LOGSEk (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) eskatzen dituen baldintza guztiak beteko genituzke. Beraz, ez genuke orain arte izan dugun azpiegi-

tura faltaren aitzakia jasoko erantzunetan. Egun, legeak eskatzen dituen baldintza gehienak betetzen ditugun arren, badira gabeziak. Besteak beste, ez dugu irakasleentzako bulegorik, komunik, eszenografia tailerrik... Gainera, orubea alokatua da eta horrek ere oztapatzen du moldaketak egitea.

■ **Eta zuen etorkizun profesionalarekin badu eraginik?**

Aktore lanetan aritzeko ez. Proba batera aurkezten zaren zure balioa eta lan egiteko modua da aintzat hartzen dena, eta ez eskolan ematen dizuten ziurtagiriak. Dena den, lanean ez bada ere, ikasketetan badu eragina. Ofiziala ez izatean ikasketak egiteko ez dizute dirulaguntzarik ematen. Onartua ez egoteak administrazio arazoak sortzen dizkizu batez ere, eta Espainiako antzerki eskolaren batean ikasketak hobetu nahi izanez gero, ez duzu dirurik jasoko. Hori gutxi balitz, han hutsetik hasi behar duzu, zure titulua ez dutelako onartzen. Era berean, aurrekontu handiagorekin kanpoko profesional gehiago ekarriko genituzte elkarlanean aritzeko eta maila hobetuko litzateke. Espainian onartzen

Antzerkigintza ikasi baino lehen Pedagogia ikasketak egin zituen Virginia Moriones iruindarrak Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogia ikasketek etorkizunerako asko balioko diotela uste du, antzerki irakasle izan nahi duelako ikastetxeren batean.

Egun gogoz ari da Xautondo antzerki taldean. Antzerkia eta hezkuntza uztartu nahi litzuke eta hezkuntzako hasierako zikloetan sartu behar dela dio. Nolanahi ere, irakaskuntzaz gain, ez du bazterten aktore lana, eta zerbait interesgarria topatuko balu eszenatik geroz lehenago litzateke.

Gobernuaren jarrera ez ezik, Nafarroan egiten den antzerki egitaraua ere kritikatu du. Morionesen ustez, bertako talde onak bultzatu eta sustatu beharrean, kanpoko emanaldiak dira nagusi eskolatik at antolatzen diren antzerki saioetan, nahiz eta askotan «onak ez izan».

ez den arren, beste herrialde batzuetan onartu izan da zure ikasketen jarraipen moduan. Egun Gobernuarentzat garrantzitsuagoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) gu baino. DBH ikasi beharrean antzerkia ikasi nahi duenarentzat ez dago tokirik.

■ **Azpiegitura faltak zuen lana asko mugatzen du?**

Bai. Eskola txikiak gelditu zaigu. Joan den urtetik Iruñeko San Frantzisko udal eskolako bigela utzi dizkigute lanean aritze-

ko. Aktoreak toki zabala behar du interpretatzen ikasteko eta hori eskolan ditugun gela txiki eta estuetan ezin daiteke ongi egin. Eskolako eszenatokian ez gara guztiak sartzen eta beti banatzen ibili behar dugu. Sarrean ere ematen ditugu klaseak. Eskolak erabiltzen ez dituen 200 metro koadro dituen, baina, hemen noiz arte egonen garen ez dakigunez eta dirurik ez dagoenez, deus gutxi egin dezakegu.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Jokoz kanpo

EPAILE BASTOI GORENAK jokaldia erabakia zeukan kartak banatu aurretik. Ondorioz, mahaikideen lagunak ezpatak tente jarri dituzte eta enbido gogorra iragarria bazuten ere, greba orokorraren ordeztu bi orduko lanuztea hitzartu dute hirugarren espazioa jokalariei urte biltzaileekin, guztien artean oihartzun zabalaren kopa xedetzat hartuz.

Madrildik jolasera etorritako Gorreri Handiena, jokoa aldatu nahian ibili da, 15 preso hurbiltzeko keinua eginez.

Jolaskideek, tranpa hutsa zelakoan, bereari eutsi diote tinko.

Hamarrekoa osatzen da sindikalagintzan, artekariek elkarri laguntzeko apustua zabaltzen dioten bitartean. Une berean, alderdi zenbaitek tantoak irabazteko aukera atzeman. Jokaldi honetan aukerako triunfoak ezin zezakeen ihes egin inola ere.

Tarteka azaltzen den jokalaria, ordea, bere ordagoa zentzugabea jaurti eta, sekulako danbatekoa emanez, desagertu egin da. Jokoz kanpo utzi ditu guztiak.

Komodin oro galduta zituen kapitaleko bizardunak lasaitu ederra hartu du. Bederatzi milimetroek bere gorrierian ezkutatzeko aitzakia emanen diote, alargunei poker aurpegia erakusten dien bitartean. Apustua irabazteko jokatu eta arriskatu beharra dago.

Dena den, karta sorta berri bat behar dugu, bakearen urre distira behingoz ezagutzearren edo betiko ludopata bihurtzeko.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Tafalla:** Gaur kontzertua izanen da gaur Azoka tabernan 23:00etan. **K.G.I** eta **D.S. XX.** taldeek joko dute.
- **Iruñea:** **M-clan** taldeak Artsaian joku du gaur 23:30etan.
- **Iruñea:** **Vaghi Conceti** abesbatzaren emanaldia izanen da datorren asteartean, 20:00etan, Gaztediaren Etxean.
- **Zangoza:** Landa tabernan **Nahita Nahiez** ariko da bihar 24:00etan.
- **Gares:** Fundamental aretoan **Ska-p** taldeak joko du bihar 23:00etan.
- **Iruñea:** **Skalariak** talde iruindarrak kontzertua eskainiko du Terminal tabernan datorren ostegunean, 23:00etan.

ERASKUSKETAK

- **Etxarri-Aranatz:** Liburutegian Deskarga Kubana Orlay Labañino kubatarraren eta Sagri Mauleon sakanarraren margolanak ikusteko azken eguna da gaur, 16:30etatik 20:30etara dago zabalik.
- **Lekunberri:** Mintxasenean Etxean **Egin. Hogei urte** erakustea ikusteko aukera dago gaur 20:00etatik 22:00etara eta bihar 12:00etatik 14:00etara.
- **Corolla:** Beatriz Castoneren marrazkiak eta olioak biltzen dituen erakusketa dago Kutur Etxean asteartean.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Txotxongilo taldeak **Eman** eta gero haurrentzako antzerki saioa eskainiko du bihar, 12:00etan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Euskararen Eguna ospatuko du gaur Arrosadia-

ko Kultur Koordinakundeak. 18:00etan euskaltegian trikitixa, albokariak, dantzariak eta sokatira izanen dira. Ordu bete geroago Ilargienean dantzaldia eta poteoa auzoko karraketan barna. Ondoren, Felix tabernan aforia eginen da.

- **Iruñea:** San Fermin peñan kirol hitzaldia izanen da datorren astelehenean

20:00etan. Hitzaldia Gaizka Aranguren kazetariak zuzenduko du. Partehartzaileak: Enrique Martin Osasunako entrenatzailea, Portland San Antonioko kide bat, mendizale eta pilotari bana.

- **Iruñea:** Gayarre Antzokian Juan Antonio Urbeltzen Argia dantza taldeak **Kondharian** ikuskizuna aurkeztuko du gaur, 22:30etan.

- **Iruñea:** Jose Mari Satrustegi euskaltzain eta antropologoak Olentzeroren inguruko hitzaldia eskainiko du astelehenean, 20:00etan, Gaztediaren Etxean. Ondoren Ttakun txalaparta taldeak joko du.

- **Leiza:** Bertso-afaria eginen da gaur, Torreia tabernan, 21:00etan. Jokin Sorozabal eta Jexumari Irazurekin.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....

RETEGI BERATZEGIA OMEN ZEN PILOTARAKO, INDURAIN HANDIEGIA TXIRRINDULARITZARAKO,



ETA ZUTAZ, ZUTAZ ZER ESANEN DUTE?



Fitsik AHIA

Zeren inork ez baitu zure haurra ezagutzen zuk bezain ongi